

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 30. JAIAREN HASIERA-EKITALDIKO DISKURTSOA

Agintari, hezkuntza-komunitateko kide, gonbitatu eta bereziki Mungialdeako ikastetxe publikoetako ikasle, guraso eta irakasleei.

Egun on eta mila esker gaur gurekin egoteagatik Euskal Eskola Publikoari babesa ematen.

“Jagon” da Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren 30. edizio honen leloa.

“Zaindu”, “babestu”, “gorde”. Horiek dira bizkaieraz adiera honek dituen esanahiak.

Gurera ekarriaz, “Euskal Eskola Publikoa” izena duen altxor bat dugu eta guztioi dagokigu altxor hori zaindu, babestu eta gordetzea, bakoitzari dagokigun arlotik.

Agintarioi dagokizue Eskola Publikoa behar bezala hornitzea eta hezkuntza-komunitateari dagokigu baliabide horiekin kalitatezko eskola publiko euskaldun eta parte-hartzailea eraikitzea.

30 urte pasatu dira Euskal Eskola Publikoaren aurreneko Jaia ospatu genuenetik Lasarteko hipodromoan. 30 urte pasatu dira ere Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu zenetik.

Lege honen printzipio eta konpromisoak indar guztia dute gaur egun, ezin da amortizatutzat eman.

Lege-esparru berri bat egin nahi den momentu honetan, ezin da atzerapausorik eman, lege horretan garatu gabe geratu ziren arloak garatu behar dira eta eskola publikoak egun dituen erronkei erantzun behar zaie.

Finean, eskola publikoak bultzada instituzional eta soziala behar du, bere funtzio egituratzailea indartzeko eta sistemaren sare nagusia izatera heltzeko.

Hori lortzeko, arlo hauek ezinbestekoak dira:

- **Eskola publikoaren berrantolaketa eta plangintza estrategikoa.** Eskola publikoa merkatu sistematik atera behar da, bere eskaintza handitu eta kalitatezko irakaskuntza eskaini ikastetxe guztietan, eskola publikoen sare solidario inklusibo eta orekatua osatuz.
- **Eskola publikoa behar bezala hornitu behar da, azpiegitura eta baliabide pertsonal zein materialei dagokienean.** Ezinbestekoa da ikastetxe publikoetan eman den inbertsioen atzerakada errekuperatzea. Inbertsioak behar ditugu ere metodologia pedagogikoetan eta berrikuntza-programetan.
- **Kalitatezko zerbitzuak behar ditugu, egungo familien beharrei erantzungo dietenak.**
- **Gobernantza-eredu-parte-hartzailea behar dugu,** eskola-komunitatea osatzen dugun kideen parte-hartze demokratikoan oinarritua.
- **Euskal Eskola Publikoa aitzindari izan da euskalduntze prozesuan.** Hizkuntza-ereduen sistema gainditu eta euskara biziberritzeko proiektu estrategikoa behar du eskola publikoak.

Gaur eta hemen helburu hauekin bat datozenekin elkarlanean aritzeko konpromisoa adierazten dugu. Eskerrik asko.